

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AMURRIOKO UDALA

2023an bi urtekoen ikasgelen zerbitzua emateko dirulaguntzak deitzen dituen Tokiko Gobernu Batzarraren erabakiaren laburpena

BDNS(Identif.): 707972.

Bat etorri Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan jasotakoarekin, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalan dago ikusgai: <https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/conocatoria/707972>.

Lehenengoa. Onuradunak

Eusko Jaurlaritzak homologatutako eta itundutako ikastetxe pribatuak, baldin eta Amurrioko udalerrian badaude eta bi urtekoen ikasgelen zerbitzua ematen badute.

Bigarrena. Xedea

Deialdi honen xedea da arautzea Amurrioko ikastetxe ez publikoetan bi urtekoen ikasgeletan emateko hezkuntza zerbitzuak, betiere Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak aitortuta eta baimenduta badaude.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Dirulaguntzak arautzen dituzten oinarriak Aurrekontua Betearazteko Udal Arauaren VII. kapituluaren daude jasota eta 2023ko otsailaren 24ko ALHAOn (23. zenbakia) argitaratu ziren. Haien artean, 35. oinarrian, bi urtekoen ikasgelen zerbitzurako dirulaguntzak ematea arautzen duen ordenantza jasotzen da.

Laugarrena. Zenbatekoa

Deialdi hau 51.000,00 euroekin dago hornituta.

Bosgarrena. Eskaerak aurkezteko epea

Epea deialdia argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, eta hilabetea amaituko da, deialdia argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuta.

Amurrio, 2023ko uztailaren 12a

Alkatea

JOSÉ RAMÓN MOLINUEVO LAÑA